

Ahozko hizkuntzaren erabileraren garrantzia hizkuntzaren normalizazioan, Barakaldon¹

Enara Belloso

Euskara irakaslea

ennaratxu@hotmail.com

Sarrera-data: 2011-10-23 | Onartze-data: 2011-12-22

Laburpena. Lan honen asmoa hizkuntza bat ahoz erabiltzeak duen garrantzia azpimarratzea da, kasu honetan euskararena. Euskararen normalizazioari buruzko ikerketa gutxi egin dira Ezkerraldeko eskualdean, eta ezin da ahaztu, populazioaren gehiengoa erdalduna izan arren, hain populazio-tasa altua duen eremu batean, gutxiengoa izanda ere, euskaldun kopurua izugarri handia dela. Eremu honetan egoera larrian dago euskara Kontseiluak egindako Udal Neurketen Rankinaren arabera; eskualde honetako hiri eta herriek jaso duten puntuazioa oso baxua da. Datu kezagarriak dira kontuan hartzen badugu Euskal Herriko populazioaren zati handi bat eskualde honetan biltzen dela. Lan honen asmo nagusietako bat Barakaldoko euskararen errealitatea islatzea izan da, eta horretarako, hiriaren ezaugarriak (bilakaera historikoa) ezagutzea ezinbestekoa da. Ikerketa hau, haur eta gazteengan zentratu dut bereziki, horiek baitira euskaldun kopururik handiena; gainera, erabileran eragin nahi bada, ezinbestekoa da euren jarrera eta hizkuntza ohiturak ezagutzea. • **Hitz-gakoak:** *euskararen normalizazioa, kale-erabilera, hizkuntzarekiko atxikimendua, hizkuntza-ospea.*

Abstract. **The importance of oral language use in Basque language normalisation in Barakaldo.** This paper aims to stress the importance of using a language orally, in this case the Basque language. Little research has been done on the normalisation of Basque on the Left Bank [of the Nervion river in Bizkaia]. Although the majority of the population in this area is Spanish speaking, as the population is high, the number of Basque speakers is also tremendously high, despite being in the minority. In this area Basque is in a serious situation, according to the Municipal Measurement Ranking produced by Kontseilua [Organisation of Basque Associations promoting Basque], and that is worrying if we bear in mind that a large proportion of the population of the Basque Country is concentrated in this area. One of the main aims of this work is to reflect the reality of Basque in Barakaldo, and for this purpose, it points to many features in the town's historical development. This is a piece of research dealing with children and teenagers in particular, because they constitute the biggest group of Basque speakers; what is more, if one wishes to exert an influence on language use, it is essential to get to know their attitudes and language habits. • **Key words:** *normalisation of Basque, street use, language attachment, language reputation.*

SARRERA

I

Lan honen asmoa, besteak beste, hizkuntza bat ahoz erabiltzeak duen garrantzia azpimarratzea da, kasu honetan euskararena.

Euskararen normalizazioari buruzko ikerketa gutxi egin dira Ezker aldeko eskualdean, eta ezin da ahaztu, populazioaren gehiengoa erdalduna izan arren, hain populazio tasa altua duen eremu batean, guxtiengoa izanda ere, euskaldun kopurua izugarri handia dela.

Eremu honetan, Euskal Herriko beste toki askotan bezala, egoera larrian dago euskara, Kontseiluak egindako Udal Neurketen Rankinean ikus daitezke (<http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/udalerririk/Barakaldo/Barakaldo.html>) eskualde honetako hiri eta herri hauek jaso duten puntuazio baxua: Santurtzik 3,4; Sestaok 3,32; Barakaldok eta Portugaletek 1,7. Ikus daitekeenez, datu kezagarriak dira, kontuan hartzen badugu, Euskal Herriko populazioaren zati handi bat eskualde honetan biltzen dela, euskaltzaleok badaukagu larritzeko arrazoirik.

Barakaldon, besteak beste, 17.000 biztanle euskaldun daude (<http://eu.eustat.es/municipal/Dialog/Saveshow.asp#axzz1SdUDD5Bl>) erabilera, aldiz, ez da %1era ere iristen (iturria: Sasiburu, Barakaldoko euskaldunon elkarte). Euskal hiztun komunitate handia duen hiria da, baina hain erabilera-tasa baxua izatea kezagarria da. Lan honetan erabilera-tasa baxu horretan eragin dezaketen faktoreak aztertzen saiatu naiz: historikoak, demografikoak, sozialak, hizkuntza politika ezegokia izatea ...

Lan honen asmo nagusietako bat Barakaldoko euskararen errealitatea islatzea izan da, eta horretarako, hiriaren ezaugarriak (bilakaera historikoa) ezagutzea ezinbestekoa da. Eremu asko daude euskararen egoera ikertzeko, kontuan hartuta, hiriaren eta biztanleriaren tamaina, lan hori guztia pertsona bakar batek burutzea ezinezkoa da. Kale-neurketa gutxi batzuk egin ditudan arren, eman ditudan beste datu eta arrazoi guztiak hiriaren errealitateki justifikatzen saiatu naiz (ez gai horietan aditua naizelako, baizik eta Barakaldo mailan, halako gaietan aritua naizelako) eta hainbat baieztapen egitera ausartu naiz.

Ikerketa hau, haur eta gazteengan zentratu dut bereziki, horiek baitira euskaldun kopururik handiena; gainera, erabileran eragin nahi bada, ezinbestekoa da euren jarrera eta hizkuntza ohiturak ezagutzea.

***Lan honen asmo
nagusietako bat
Barakaldoko
euskararen
errealitatea
islatzea izan da,
eta horretarako,
hiriaren
ezaugarriak
(bilakaera
historikoa)
ezagutzea
ezinbestekoa da.***

**Ikerketa hau,
haur eta
gazteengan
zentratu dut
bereziki, horiek
baitira euskaldun
kopururik
handiena;
gainera,
erabileran eragin
nahi bada,
ezinbestekoa da
euren jarrera eta
hizkuntza
ohiturak
ezagutzea.**

BARAKALDOKO EGOERA SOZIOLINGUISTIKO OROKORRAREN DESKRIBAPENA

I Hiriko datu orokorrak

Barakaldo Bilbo Handiko udalerrria da eta Nerbioi ibaiaren ezker aldean dago. 2006ko datuen arabera 96.446 biztanle ditu; egun, biztanleriaren %3-%4 Espainiar Estatutik kanpo jaioa da.

Ezker aldeko ekonomiaren ardatza da Barakaldo, orain gutxi arte burdingintza industria izan da jarduera nagusia; jarduera horrek XX. mendearen hasieran immigrazio tasa altuak ekarri zituen eskualde osora. Gaur egun, aldiz, zerbitzu hiria da, horrek, inguruko herriekin duen komunikazio sarea hobetzeko bideak jarri ditu.

Euskararen egoera historikoki

Oso zabaldua dago Barakaldon euskara XX. mende hasierako immigrazio tasa altuaren eraginez galdu zela, baina hori ez da guztiz horrela. Historiari begirada bat ematen badiogu, konturatuko gara XIX. mende bukaeran antzinako Foru Sistema porrot egiteko zorian zegoenean, Euskal Herrian euskara ez zela sozialki estimatua; horregatik, burgesiak (Bizkaikoa batez ere) euskara baztertu zuen, gaztelaniari lehentasuna emanaz. Garai hartan, Erregimen Zaharrak bizirik zirauen esparruetan mantentzen zen osasuntsu euskara, baina modernizazioaren ondorioz, baserrietik kalera zihoan jendeak gaztelania hartu zuen harreman hizkuntzatzat. Gauzak horrela, hiri tankerako giroetan, euskarak ez zuen inolako funtziorik betetzen. (ikus: Martínez de Luna et al. 1998).

Barakaldok bilakaera hori izan zuen: nekazal giroko herria izatetik, garai hartako gune industrial garrantzitsua izatera pasa zen, eta noski, horrek eragin nabarmena izan zuen hizkuntzan. Uriartek, Luis Lucien Bonaparteren agindupean, idatzitako dokumentuetan daukagu horren adibidea:

En Baracaldo los barrios de Regato y Retuerto son enteramente castellanos y es muy raro que en éstos se hable bascuence; pero en los otros cuatro que son Beurco, Burceña, Irauregui y Landaburu la gran mayoría es bascongada, porque poseen ambas lenguas, y solo algunos muy jóvenes no saben bascuence.

En el barrio de San Vicente la mayoría es castellana aunque también hay bastantes bascongados (Uriarte 1864.05.16)

Participo a S.A que he estado de intento en Baracaldo y he averiguado que en los barrios de Landaburu y Beurco se habla mucho y en el de San Vicente también algo; pero en el barrio de Retuerto y demás apenas se conoce. He hablado con muchos yo mismo en bascuence. Como los jóvenes

por lo regular hablan castellano, este idioma es el que domina. (Uriarte 1866, in <http://www.liburutegidigitala.euskadi.net/applet/libros/JPG/parlamento/00027399/00027399.pdf>).

Lekukotasun hauetan ikus daitekeenez, 1866. urtean gazte gehienek gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta askok euskara jakin. Beraz, euskararen transmisioa beherantz zihoan, immigrazio kopuru altua etorri baino lehenago.


Aipatutako egoera berriak izugarritzko eragina izan zuen Barakaldoko garapenean zein etorkizunean, bai politikoki baita sozialki ere; industria-gune garrantzitsua izanik sozialismoak indar handia izan du hirian, Ezkerralde osoan bezala. Errealitate horrek hizkuntzan ere eragin zuen, bertakoek euskara galtuta edo ia galtuta zeukaten eta kanpokoek ez zuten ikasi; beraz, gaztelania nagusitu zen.

Gaur egungo euskararen egoera

Gaurko garaietara bueltatuz, esan beharra dago, hiriko euskararen presentzia oso txikia dela gaztelaniarekin alderatuta, ondorengo grafi-koetan ikus daitekeen moduan:

Euskararen ezagutza

1. Grafikoa. Euskararen ezagutza



Iturria: Eustat, 2001, 2006 urteko datuak


http://eu.eustat.es/municipal/Dialog/Varvalagg.asp?ma=pxMunicipal_e&ti=Udal+informazioa&path=../&lang=2&xu=&yp=&nr=2&prevagg=YNN&group%281%29=Barakaldo_e&aggfile%282%29=Euskara&mapname=Capv_udalerrria&multilang=#axzz1SdUDD5BI

1866. urtean gazte gehienek gaztelaniaz egiten zuten, nahiz eta askok euskara jakin. Beraz, euskararen transmisioa beherantz zihoan, immigrazio kopuru altua etorri baino lehenago.

2009-2010 ikasturtean Barakaldoko ikasleen %28,04k baino ez zuen ikasi euskalduntzen duen eredu bakarrean, hots, D ereduan. herritarrek nagusiki gaztelania erabiltzeko dituzten arrazoiak eta motibazioak ere aztertu beharrekoak dira:

Etxean erabiltzen den hizkuntza (biztanle kopurua)


2. Grafikoa. Etxean erabiltzen den hizkuntza (biztanle kopurua)



Iturria: Eustat, 2001, 2006ko datuak

http://eu.eustat.es/municipal/Dialog/Varvalagg.asp?ma=pxMunicipal_e&ti=Udal+informazioa&path=../&lang=2&xu=&yp=&nr=2&prevagg=YNN&group%281%29=Barakaldo_e&aggfile%282%29=Euskara&mapname=Capv_udalerrria&multilang=#axzz1SdUDD5Bl

3. Grafikoa. Euskararen erabilera eta ezagutza Barakaldon




(Ezagupena: Eustat 2006. Erabilera: ISEI 2001. Iturria: Sasiburu Barakaldoko Euskaldunon Elkartea)

Grafiko hauei erreparatuta, argi dago euskara eta gaztelaniaren artean alde handia dagoela, bai ezagutzari dagokionez baita erabilerari dagokionez ere. 17.214 biztanle euskaldunetz ari gara, nahiz eta 868 biztanlek soilik erabili. EAEn gertatu denari jarraituz, Barakaldon ere ezagutza eta erabilera ez dira proportzio berean igo.

Euskararen egoera BARAKALDOKO irakaskuntzan Matrikulazio-datuak

3. Grafikoa. Matrikulazio datuak



Iturria: Sasiburu Barakaldoko euskaldunon elkarte

Gehiengoaren hizkuntza ez da soilik hiztun kopuru gehien duen hizkuntza, gehiengoaren hizkuntzak gizarte posizio bat adierazten du, hizkuntza horren legitimitatea indarrean jarritz.

Kopuru eta dezimalak gorabehera, 2009-2010 ikasturtean Barakaldoko ikasleen %28,04k baino ez zuen ikasi euskalduntzen duen eredu bakarrean, hots, D eredu. Horrek esan nahi du, azken urteotan hiriko ikastetxeetatik atera diren eta aterako diren milaka gazte euskara menperatu edota jakin gabe aterako direla euren ikastetxeetatik.

Etorkinek hautatzen duten eredu, aldiz, A eredu da gehienbat, D eredu matrikulatzen diren atzeritarrak gutxiengoa dira. Askotan erlijio eta hizkuntza kontuengatik izaten da, horietako asko hegoamerikarrak baitira.

1996-1997 eta 2007-2008 ikasturteen artean D ereduaren urteko batz besteko igoera %1,31ekoa izan da. Abiada honekin Hezkuntza Sistema honek ikasle guztiak euskalduntzeko **76 URTE** inguru beharko lirateke.

Euskararen presentzia administrazioan eta kalean

Kontseiluak 2010ean Barakaldon burututako udalaren hizkuntza-politikaren neurketaren arabera, bereziki azpimarragarria da, *zonalde mistoan egonik hizkuntza-eskubideen bermerako corpus juridikoa artikulatua du: ordenantza hain zuzen. Ordenantza horrek jasotakoak, ordea, egun ez du ziurtatzen euskarazko zerbitzua jasotzea. Langile berri guztiak euskaldunak izateko erabaki traktore batek horretara iristeko bultzada emango luke. Hizkuntza-paisaian euskararen presentzia arautzen duen erabakia hartua dago. Udalaren komunikazio ofizialetan euskara nabarmenduz egin dadin erabakia hartua dago.*

**Barakaldon
prestigiodun
funtzio guztiak
edo gehienak
gaztelaniak
betetzen ditu,
euskara bigarren
mailan geratzen
delarik.**

Barakaldon euskara normalizatzeko bidean oraindik gauza asko egin behar dira:

Ez dago ez ordenantzarik, ezta plan orokorrik ere eta euskararen aurrekontua %0,04koa da. Ez da neurri eraginkorrik hartu udal langileek herritarrari zerbitzua euskaraz eman diezaioten: kontratatutako langile berri guztiak euskaldunak izateko erabakirik ez da hartu, ez dago barne erabilera plan egokirik (langile guztiak ez ditu barnebiltzen) eta sail bakar batek ere ez du euskaraz funtzionatzen. Azpikontratututako enpresek herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzeko ez da inolako erabakirik hartu. Euskaingintzari ez zaio inolako laguntzarik eskaintzen: ez ekonomikoa, ezta egiturazkoa ere. Herritarrek ez dute euskara ikasteko beka sistema arauturik. (in <http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/udalerriak/Barakaldo/Barakaldo.html>).

Hau guztia kontuan harturik, argi geratzen da euskal hiztunen hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzen direla; beraz, Barakaldoko Udalak, euskara sustatu eta normalizatzeko bide luzea du egiteko.

Datu hauek ikusita, argi dago administrazioak lan handia duela egiteko, baina herritarrek nagusiki gaztelania erabiltzeko dituzten arrazoiak eta motibazioak ere aztertu beharrekoak dira:

Euskararekiko motibazio sinbolikoak

Hizkuntzaren erabilera ikuspegi dinamiko batetik aztertu behar da, hots, gizarte harremanetan parte hartzen duen oinarritzko elementu bezala. Izan ere, giza harremanak ez dira orekatuak, gatazkatsuak baizik. Pertsonak gizartean posizio ezberdinak dituzte eta posizio hobeak lortzeko etengabe ari dira lehian, legitimitatea lortzeko (ikus Martinez de Luna et al. 1998).

Gizarte-posizio horiekin zerikusi zuzena du gizarte-maila ezberdinetan erabiltzen den hizkuntzak; hizkuntzek pertsonak bezala, gizarte toki boteretsuak nahi baitituzte beraien espazio sinbolikoa gauzatzeko; horregatik, bereizten dira gehiengoaren edo gutxiengoaren hizkuntzak. Gehiengoaren hizkuntza ez da soilik hiztun kopuru gehien duen hizkuntza, gehiengoaren hizkuntzak gizarte posizio bat adierazten du, hizkuntza horren legitimitatea indarrean jarritz. Gutxiengoaren hizkuntzak, aldiz, gizarte eredu denari jarraitu behar dio; horretaz gain, eredu propioak eratzekeo definizio prozesu batean sartu beharra dauka.

Barakaldo bezalako eremu diglosikoetan, hizkuntzak ikur bihurtzen dira: hizkuntza bakoitza irudi zehatz eta funtzio bati lotua egon ohi da. Horregatik, erabilera bultzatzeko hizkuntza horren ikurrek legi-

timoak izan behar dute, irudi eta funtzio legitimoen lotuak egongo direnak. Bada, hizkuntza baten ospea edo prestigioa betetzen dituen hizkuntza-funtzioen loturik doakio, Barakaldon prestigiodun funtzio guztiak edo gehienak gaztelaniak betetzen ditu, euskara bigarren mailan geratzen delarik.

Txepetxen *kategoria guneak* kontzeptuaren arabera, hizkuntza bat erabiltzeko garrantzitsuena ez da espazio fisikoa baizik eta espazio sinbolikoa, pertsonen harremanen arabera garatzen dena (ikus Martinez de Luna et al. 1998). Izan ere, hitz egiteko era eta hizkuntza bera aldatzea eragiten duena ez dira hiri bateko espazio fisikoak, baizik eta pertsona konkretuen hizkuntza-harremanak.

Bestalde, esan daiteke, baldintza sozialek ezartzen dituztela hizkuntza batek bete beharreko funtzioak. Gainera, hizkuntza bat ikasteko edota erabiltzeko motibazioak ere baldintza horiei loturik daude: motibazio sinbolikoak, arrakasta motibazioak eta motibazio pragmatikoak. Gaur egungo Euskal Herrian motibazio sinbolikoak, euskal nortasun komunarekin du lotura estua, arrakasta motibazioak, berriz, elite sozioekonomiko eta politikoen hizkuntza ereduari jarraitzea esan nahi du, eta motibazio pragmatikoak euskararen balio materiala azpimarratzen dutenak dira. Barakaldon euskarak funtzio pragmatikoa betetzen du: ikasketetan erabiltzen den hizkuntza edo lan egiteko behar den hizkuntza. Funtzio soziala, aldiz, gaztelaniak betetzen du ia %100.

Bi atxikimendu komunitate ere bereiz daitezke:

1. Taula. hizkuntzarekiko atxikimendua

Gaztelaniaren atxikimendu komunitatea	Euskararen atxikimendu komunitatea
Hizkuntza komunitate bat	Bi hizkuntza komunitate
Komunitate diskurtsibo trinkoak	Komunitate diskurtsibo murriztuak
Gaurkotasuna	Iragana/etorkizuna
Motibazio eza, ahula edo pragmatiko murriztaileak	Motibazio sinbolikoa nagusiki (arbasoekiko lotura, euskal nortasuna, integrazio bidea, ziurtasun soziala)
Euskara: <i>riqueza cultural</i>	Euskara: euskaldun nortasuna
Euskara "ezagutu"	Euskaraz bizi

(in MARTINEZ de LUNA I., JAUSORO N., Euskararekiko motibazio sinbolikoak, INTXAUSTI Joseba, Euskararen aldeko motibazioak, Leioa, UPV, 1998 95.or.).

Barakaldon euskarak funtzio pragmatikoa betetzen du: ikasketetan erabiltzen den hizkuntza edo lan egiteko behar den hizkuntza. Funtzio soziala, aldiz, gaztelaniak betetzen du ia %100.

**Barakaldoko
gizartean
gaztelaniaren
atxikimendu
komunitatea
nabarmentzen
dela esan liteke,
jendea
euskararen alde
egon badago,
baina euskarak
ez du tokirik
gizartean,
ikasteko edo lana
topatzeko ez
bada. Euskararen
atxikimendu
komunitatea,
euskararekiko
motibazio
sinbolikoa
duena, aurki
badaiteke ere;
sarritan,
motibazio hauek
ez daukate
erabileran
eragiteko beste
indarririk.**

Gaztelaniaren atxikimendu komunitatea trinkotua dago, gainera, hizkuntza batean aritzeak hizkuntzari gaurkotasuna ematen dio, eta hizkuntza horren beharra areagotzen du. Horrela, gaztelaniak bere nagusitasuna nabarmentzen duten atxikimendu komunitate eta komunitate diskurtsibo sendoak ditu.

Euskararen atxikimendu komunitatea ere trinkotua dago, batez ere afektibotasunaren dimentsioan. Hizkuntza hau sendotzeko, ordea, komunitate diskurtsiboak eratzea beharrezkoa da, dimentsio arrazionala eranstean diotelako, eta, horrekin batera, gizarte mailako hizkuntza hedatzen laguntzen dutelako. Bi hizkuntzatan aritzeak, gainera, euskararen gaurkotasunari kalte egiten dio, eta bere beharra mugatua izatera behartzen du.

Barakaldoko gizartean gaztelaniaren atxikimendu komunitatea nabarmentzen dela esan liteke, jendea euskararen alde egon badago, baina euskarak ez du tokirik gizartean, ikasteko edo lana topatzeko ez bada. Bestalde, euskararen atxikimendu komunitatea, euskararekiko motibazio sinbolikoa duena, aurki badaiteke ere; sarritan, motibazio hauek ez daukate erabileran eragiteko beste indarririk.

Barakaldo bezalako hiriguneetan erdal gizarte-sareak dira nagusi, nahiz eta bestelakoak ere existitu. Horregatik, gizarte arauen aldetik, gaztelania da nagusi, hizkuntza horrek ezartzen ditu arauak, euskarak bereganatzen dituen guneak motibazio sinbolikoen bidez eratzen den militarismoan oinarrituta daudelarik. (Martinez de Luna et al. 1998, 109).

Hizkuntza batek gizartean duen indarra, gizarte horretan bertan duen kokapenaren eta betetzen dituen funtzioen arabera neurtuko da, horrela, hizkuntza bat botere edo menpeko une zein egoeratan kokatuko da. (Martinez de Luna et al. 1998, 129).

Barakaldoko kasuan, erabilera datuetan islatzen den bezala, gaztelania da nagusi, botere egoeran dagoela esan daiteke. Euskara, berriz, menpeko hizkuntza da, ez du apenas funtziorik betetzen. Hizkuntza baten osasunak, maiz, hizkuntza horrek gizartean duen kokapenarekin zerikusia du. Beraz, euskarari inolako funtziorik edo legitimitaterik aitortzen ez bazaio, nekez egongo da osasuntsu. Izan ere, hizkuntza bakoitzari bere "ikur" zehatza ezartzen zaio eta bere erabilera ikur horren arabera "gizarte araupean" gelditzen da, horrela, erabilera non, no-rekin, zein egoeratan... finkatzen delarik.

Metodologia

Hizkuntza baten erabilera da azken batean hizkuntza horren osasun egoeraren adierazgarri garrantzitsuenetako bat. Hori neurtzeko Barakaldon euskaraz egiten den guneetako batzuk aukeratu (D ereduko

Beurko institutua, Adaxkak Sortzen Aisia Taldea eta Bertso Eskola) eta fitxa hauek erabilia neurketa batzuk egin nituen talde hauetako arduradunen laguntzaz:

1 • FITXA				
Eguna:	Orduak:	Tokia:		
	Euskara			
Adina:	Neska		Mutila	
Egoera: klasean/klasetik kanpo				
Guztira:				
	Ikasle/ikasle	Irakasle/irakasle	Ikasle/irakasle	Irakasle/ikasle
Guztira:				


2 • FITXA				
Eguna:	Orduak:	Tokia:		
	Gaztelania			
Adina:	Neska		Mutila	
Egoera: klasean/klasetik kanpo				
Guztira:				
	Ikasle/ikasle	Irakasle/irakasle	Ikasle/irakasle	Irakasle/ikasle
Guztira:				

handitzen doazen neurrian, eskolatik kanpo daukaten munduan ez dute euskararen presentziarik ikusten, “modako” gazetan ez dute euskara behar: telebista, musika, lagunak, sexua...

NEURKETEN EMAITZAK

Ondorengo grafikoek biltzen dituzte lortutako emaitzak:


4. Grafikoa. Beurko institutuko jolas-orduko datuak (12-14 urte bitarteko gazteak, 215 ikasle):



5. Grafikoa. Bertso eskolako datuak(15-31 urte bitarteko 7 gazte):



6. Grafikoa Adaxkak Sortzen Aisia Taldeko Umeak (6-12 urte bitarteko 30 ume)



NEURKETEI BURUZKO DATUEN AZTERKETA OROKORRA:

I

Adaxkak Sortzen Aisia- Taldeko begiraleak (24-28 urte bitartekoak)

Bost neska eta mutil bakarra aritzen dira begirale gisa, aisia-taldeko kontuei buruz aritzen direnean, beti euskaraz egiten dute. Dena den, begiraleak hiru koadrila ezberdinetakoak dira eta koadrila berekoak diren partaideek gaztelaniara pasatzeko joera daukate.

Esan beharra dago, koadrila ezberdinetakoak diren begiraleen artean euskaraz hitz egiteko joera dagoela; harreman hori aisia-taldean sortu baita, euskaraz.

Adaxkak Sortzen Aisia-Taldeko umeak(6-12 urte bitartekoak)

Ume hauek askotan euren artean euskaraz aritzen dira, baina gaztelaniara jotzeko joera handia daukate; batez ere, eurak bakarrik jolasten ari direnean (begiraleei beti euskaraz egiten diete). Esan daiteke, euskaraz jolastea aisia-taldeko kontua bakarrik dela, Adaxkakeko ekintzak amaitzen direnean, elkarrekin jolasten geratu ohi dira, baina orokorrean gaztelaniaz jolasten dira.

Bertso eskola (15-31 urte bitarteko gazteak)

Bertso eskolan dabiltzan gazteak bai eskola barruan bai kanpo, euskaraz aritzen dira beti.

Beurko institutuko jolas ordua (12-14 urteko gazteak)

Beurko institutua D eredukoa bada ere, gaztetxoek gaztelania hutsean egiten dute euren artean: guztira 215 ikasle dauden arren, jolas orduan egindako neurketetan, 2 neska eta mutil bakarra ari ziren euskaraz. Irakasleengana euskaraz zuzentzeko ohitura duten arren, udaletxeak daraman gazte bulegoko monitorearekin (drogei buruz, sexuari buruz etab. hitz egiten diena) beti gaztelaniaz aritzen dira, begiralea euskalduna izanda ere.

NEURKETETATIK ATERATAKO ZENBAIT ONDORIO

I

Datuak adinaren arabera aztertuta, gaztetxoagoak diren umeak askotan euskaraz aritzen direla ikus daiteke Adaxkak aisia-taldean. Aipatu beharra dago, ume hauetako askok etxean euskaraz egiten dutela, baina handitzen doazen heinean gero eta gutxiago egiten dute euskaraz.

Ingurunea oso erdalduna izateaz gain, erdaraz hainbeste aritzeko arrazoietako bat hau izan liteke: handitzen doazen neurrian, eskolatik kanpo daukaten munduan ez dute euskararen presentziarik ikusten, “modako” gauzetan ez dute euskara behar: telebista, musika, lagunak, sexua...

Horren harira, euskarazko gazte-hizkeraren absentsia izan daiteke beste arrazoietako bat; izan ere, ikasteko hizkuntzatzat daukate, gainera, etxean euskaraz egiten dutenek, gurasoekin eta gauza formalekin lotzen dute hizkuntza. Euskara eremu formaletan soilik erabiltzen dutenez, ez dute baliabiderik hizkera gazte bat sortzeko (horrez gain, batzuek oso maila baxua daukate, askoz errazagoa zaie gaztelaniaz hitz egitea).

Euskara eremu formaletan soilik erabiltzen dutenez, ez dute baliabiderik hizkera gazte bat sortzeko (horrez gain, batzuek oso maila baxua daukate, askoz errazagoa zaie gaztelaniaz hitz egitea).

Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa orokorra

Gazteen hizkuntza hautuak aztertzea fenomeno konplexua da, faktore askoren menpe baitaude. Gainera, azterketa hauek egiterakoan, zaila da bereiztea non hasten den arrazoi bat eta non bukatzen den bestea.

Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak hiru mailatan ordenatuta daude:

2. Taula. Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak

Maila makrosoziala		Kontsumo eskaintza (produktuak eta zerbitzuak)	Input mediatikoak		Testuinguru politikoa
Maila mikrosoziala	Pertsona eta talde erreferente-ak	Harreman sareetako hizkuntza arauak eta ohiturak	Hizkuntzarekiko gizarte pertzepzioa		Hizkuntza gaitasuna
			Egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa		
Maila indibiduala		Haurtzaroko hizkuntza ingurunea	Jarrera eta portaerak	Identitate kolektiboak	

Iturria: Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua, emaitzen txostena, 16.or.

Barakaldoko D ereduko gazteen errealitateari begira, esan liteke hiru maila hauetan gaztelania nagusi dela:

- Gazte gehienak familian gaztelaniaz aritzen dira. Etxeko transmisioa gorantz doan arren, bataz beste etxean euskaraz aritzen direnen kopurua gutxiengoa da.
- Inguruan dituzten talde edo mugimenduekiko kidesun sentimenduak eragina omen du, baina, gazte hauen kasuan, euskal nor-tasuna duen talderen batekin identifikatuta sentitzen direnek ere gaztelaniarekiko hautu nabarmena egiten dute. Askotan, alde nabarmenak aurki daitezke pertsona batek aitortzen dituen jarreraren eta erakusten duen jokabidearen artean.
- Bestalde, inguruan dituzten talde gehienak erdaldunak direla esan liteke.

– Maila makro-sozialari dagokionez, gazte hauei heltzen zaizkien publizitate zein input mediatiko ia guztiak gaztelaniaz daude (ingelesez ere, gero eta gehiago).

Hezkuntza formalari dagokionez, esan beharra dago, D ereduaren abian jarri zenean, hiztun belaunaldi berri bat sortu zela: euskara hutsetik hasita ikasi zuten gaztetxoak, alegia. Barakaldoko kasuan haue-tariko asko etorkin erdaldunen seme-alabak edota ilobak dira.

Aipatu beharra dago, gazte haue-tako askoren hizkuntza gaitasuna ez dela D eredurako espero zen gaitasuna, eskola edo institutu barruan euskara entzuten dute, baina oso gutxi produzitzen dute hizkuntza honetan, eta, gehienetan, irakasleekin soilik erabiltzen dute. Gainera, eskolatik kanpo oso estimulu gutxi jasotzen dituzte euskaraz; familia gehienak erdaldunak baitira eta kalean apenas entzuten da euskararik. Alde nabarmena dago, etxean euskaraz egiten duten gazteen hizkuntza gaitasunean, gazte hauek erraztasun handiagoa daukate euskaraz ari-tzeko: ahoz zein idatziz.

Hizkuntza gaitasunak zerikusi zuzena du erabilerarekin; izan ere, hizkuntza bat ez bada ondo menperatzen, nekez erabiliko da. Ezagutza urria izanda hizkuntza bat erabiltzeko, motibazio bereziak beharko li-rateke, gutxiengoa dira Barakaldon motibazio hori duten gazteak. Dena den, esan beharra dago, D ereduaren ikasi zuten lehen belaunaldi horie-tako askok, egun seme-alabak izan dituztela, eta Barakaldoko kasuan, guraso gazte askok euren seme-alabei euskaraz egiten dietela. Horrek esan nahi du, datozen belaunaldietan etxeko transmisioa areagotuz jo-ango dela, beraz, erabilerak ere gora egingo duela.

Beurko institutuko gazteei euren hizkuntza ohiturei buruz galde-tzean, euskaraz dakiten ikaskide edo lagunekin zergatik beti erdaraz egiten duten galdetzean, honelakoak erantzun zizkidaten: denek gaz-telaniaz badakite, errazena eta erosoena gaztelaniaz aritzea da. Lagu-nekin euskaraz aritzea artifiziala da eurentzat; gainera, baten batek euskaraz egitekotan gaztelaniara pasatzeko esaten diote.

Gazte hauen hizkuntza ohituren atzean, hizkuntza gaitasuna eta autoritateengandik (guraso zein irakasle) bereizi nahia ere badaude. Euskara erregistro formaletan soilik erabiltzeko ohitura daukate, guraso edo irakasleekin. Horretaz gain, gazte askok ez dauka errekurtsorik, gaitasunik, euskarazko gazte hizkera batean aritzeko edo sortzeko. Barakaldoren eremu geografikoa kontuan hartuta, ez dago horren gertuko erreferentziarik, ez baitago euskalkiaren eraginik eta euskara estandarrak ez du lortu, oraindik, eremu guztietara zabaltzea. Gazteek edozein hiz-

***D ereduaren ikasi
zuten lehen
belaunaldi
horietako askok,
egun seme-
alabak izan
dituztela, eta
Barakaldoko
kasuan, guraso
gazte askok
euren seme-
alabei euskaraz
egiten dietela.***

kuntzatan ari direla ere, gazte sentiaraziko dituen hizkuntza sortu behar dute. Hizkera hori kalitatezkoa izateko, ordea, euskarazko iturrietatik eta euskal kulturaren erreferenteetatik sortu beharko litzateke.

Beste faktore garrantzitsu bat gizarte sareak dira. Gaztetxoak hainbat gizarte-sareren partaide dira: ikasgela barrukoa, ikasgelaz kanpokoa, koadrila, auzoko lagunak...

Etxean euskaraz egiten dutenek izan ezik, gainontzeko gazte barakaldarren harreman-sare euskaldun bakarra irakasle, begirale edo horrelako autoritateak izaten dira. Harreman-sareak aldatuz doaz denborarekin, batez ere nerabeen kasuan, institutua bukatzean sortuko zaizkien harreman berrietan euskarak tokia izan lezake ala ez.

Arestian esan bezala, eskolak lan handia egin du euskararen ezagutza eta erabilera areagotuz, baina ezin da euskalduntzea eskolaren esku soilik utzi. Harreman-sare euskaldun gehiago eraiki behar dira, batez ere Barakaldo bezalako eremuetan. Horregatik dira garrantzitsuak Adaxkak aisia-taldea edo bertso-eskola bezalako eremuak. Izan ere, 1999an 13-14 urteko gaztetxoan euskararen egoerari buruz egindako ikerketak azaltzen duen bezala, gazte hauek egiten dituzten kirol jarduera gehienak gaztelania hutsean dira. Horrelako eremuetan eragin ezean, nekez erai-kiko ditugu eskolaz kanpoko harreman-sare euskaldunak.

HIZKUNTZAREN ERABILERAN ERAGITEN DUTEN FAKTORE ZEHATZEN AZTERKETA

I

Goian aipatutakoaz gain 14. orrialdeko taulan agertzen diren kontzeptuak aztertzea ezinbestekoa da, Barakaldoko euskaldunen hizkuntza ohiturak ulertzeko:

Testuinguru politikoa

Hizkuntzaren estatus legalari dagokionez, 6. eta 7. orrialdeetan aipatutakoan hau azpimarratuko nuke:

Azpikontratutako enpresek herritarrei euskarazko zerbitzua eskaintzeko ez da inolako erabakirik hartu. Euskaingintzari ez zaio inolako laguntzarik eskaintzen: ez ekonomikoa, ezta egiturazkoa ere. Herritarrek ez dute euskara ikasteko beka sistema arauturik.. (in <http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/udalerriak/Barakaldo/Barakaldo.html>).

Sasiburu Barakaldoko Euskaldunon Elkarte, Adaxkak Sortzen Aisia Taldea, Bertso Eskola eta Hala Dzipo euskal soinu tresnen eskola bezalako el-

karteek euren jarduerak euskaraz burutzen dituzte, elkarte hauek guztiek euskal izaera kulturala dute eta udaletik at sortutakoak dira.

Beste elkarte gehienek, ordea, gaztelania hutsean funtzionatzen dute: Grupo alpino Turista Barakaldo, Emakumearen Aholkularitza Zentroa Argitan, Barakaldoko Lagunak Kultur Elkarte, Barakaldoko Zentro erregionalen konfederazioa, Motsukora Manga, Anime eta Kultura Japoniarraren Elkarte, Gaztenahiak Kristau Hezkuntza Egitaraua Aisialdian...

Input mediatikoak

Euskal Herri mailan gertatzen den bezala, Barakaldon ere gazteei heltzen zaien publizitate gehiena gaztelaniaz izaten da. Udaletxeko bandoak elebitan egoten dira, baina hiriko komertzioetako iragarkiak gaztelaniaz daude ia %100ean. Barakaldoko merkataritza-gune handietan euskararen presentzia urria da. Beraz, orokorrean esan daiteke, barakaldarrek jasotzen duten ia publizitate guztia erdaraz dagoela.

Hedabideei dagokienez, esan beharra dago hirian dauden hedabideak Tele 7, Radio 7ren programazioak gaztelania hutsezkoak direla. (ikus http://www.tele7.tv/index.php?option=com_content&task=blog-category&id=0&Itemid=27)

Bestalde, Euskal Herriko gazteak oro har, ikus-entzunezko kulturaren txertatuta daudela esan liteke. Internet indartsu sartzen ari da, gazte gehienak asteko egun guztietan konektatzen dira, eta sare sozialek izugarrizko indarra daukate. Sakon aztertu beharreko arloa litzateke hau: horrelako sareetan gazteak zein hizkuntza eta hizkeratan mintzo diren.

Pertsona eta talde erreferenteak

Barakaldoko gizartean erreferentzia diren pertsonen jokaera aztertuta, guztiek erdaraz egiten dutela ikus daiteke, esate baterako:

- Tontxu Rodriguez (PSOE), Barakaldoko Alkateak, ez daki euskaraz, eta publikoki hitz egiten duenean oso gutxitan egiten du euskarazko adierazpenik.
- Javier Clemente futbol entrenatzaile ospetsuak ere ez daki euskaraz.
- Carlos Sobera telebistako aurkezle ezagunak ere ez du ia inoiz euskaraz egiten.

Gazte barakaldarrek ingurunean dituzten hiriko erreferentzia ezagunek ez dakite euskaraz edo ez dute inoiz egiten.

**Lagunekin
euskaraz aritzea
artifiziala da
eurentzat;
gainera, baten
batek euskaraz
egitekotan
gaztelaniara
pasatzeko esaten
diote.**

**Elebitasuna ez da
orekatua,
euskara
ikastetxean soilik
dabilte haur
eta gazte askok,
eskolatik at oso
estimulu gutxi
jasotzen dituzte
euskaraz
(familia, eskolaz
kanpoko
jarduerak,
publizitatea,
komunikabideak)**

Barakaldoko gazteen hurbileko erreferentzien jokaerak ere aztertu beharko lirateke. Izan ere, askotan, euskaraz egiteko eskatzen zaie, baina hurbil dituzten erreferentzia euskaldunek ez dute egiten.

Egoera soziolinguistikoaren gizarte pertzepzioa

Gai hau modu formalean aztertu beharko balitz ere, Barakaldoko gizartearen euskararen bilakaera historikoari buruzko pertzepzioa orokorrean bi joeratan banatzen dela esan liteke; alde batetik, Ezkerraldean orokorrean inoiz ez dela euskaraz hitz egin uste dutenak, hots, Patxi Lopez lehendakariaren hitz ezagunei jarraitzen dietenak:

“Yo es que soy de la margen izquierda, una zona donde no se ha hablado euskera nunca. Y el euskera es complicado (in http://xlsemanal.finanzas.com/web/articulo.php?id=55018&id_edicion=5147&salto_pagina=3)

eta beste alde batetik, euskara espainiar etorkinak etorri zirenean galdu zela uste dutenak. Hasierako atalean azaldu bezala, biak dira uste okerrak, baina Barakaldoko biztanleen artean sarritan entzun daitezkeen adierazpenak dira.

Bestalde, gazte gehienek euskara etorkizunean lana topatzeko edo ikasketetan aurrera egiteko tresnatzat daukate. Hala ere, badira euskararen balioa zalantzan ipintzen dutenak ere, kalean edota ikastetxean erabili beharrik ez dutelako. Gainera, euskararen balioa Euskal Herriko lurraldera mugatuta ikusten dute askok. (ikus Martinez de Luna et al. 2000).

ZENBAIT ONDORIO

I
Laburbilduta, hauek dira Barakaldoko euskararen erabilera baldintzatzen duten arrazoietakoz batzuk:

Testuinguru politikoari dagokionez, Barakaldoko Udalak euskararekiko duen jarrera axolagabea dela esan liteke. Hizkuntza-politika hiru elementuk osatzen dute: corpus juridikoak, baliabideek eta euskararen egoerak edo ezagutza tasak. Corpus juridikoan Barakaldoko Udalak bete beharko lituzken euskararen aldeko arauak, ez dira betetzen, ez dago ez ordenantzarik, ezta plan orokorrik ere eta euskararen aurrekontua %0,04koa da.

Kontseiluako Udal Neurketen Rankinean Barakaldok 1,13ko puntuazioa besterik ez du lortu, rankinaren azken postuetan agertzen da, euskara ofiziala ez den lurraldeetan kokatutako udal batzuen azpitik.

Hizkuntza gaitasunari begiratzen badiogu, hiriaren proportzioan gutxiengoa bada ere, 17.000 biztanle euskaldunei buruz ari gara, kopuru garrantzitsua benetan.

Hasierako ataleko grafikoetan ikus daitekeenez, 2009-2010 ikasturtean gazte barakaldarren %28,08k D ereduan ikasi zuen, %49,47k B ereduan eta % 22,48k A ereduan. D eredia bada, horrelako eremu soziolinguistikoetan euskalduntzen duen eremu bakarra, haur eta gazte barakaldarren hizkuntza gaitasuna kezagarria da.

Horretaz gain, hain eremu erdalduna izanik, elebitasuna ez da orekatua, euskara ikastetxean soilik darabilte haur eta gazte askok, eskolatik at oso estimulu gutxi jasotzen dituzte euskaraz (familia, eskolaz kanpoko jarduerak, publizitatea, komunikabideak...)

Hiztunen arteko gaitasuna orekatua edo desorekatua izan daiteke. Faktore honek ere erabileran eragiten du askotan, ikasten ari direnek lotsa sentitzen baitute euskaraz ondo dakitenekiko. Bestalde, haur eta gazte gehienek erregistro formala soilik ezagutzen dute, gai batzuei buruz aritzeko zailtasunak dituztela esan liteke, ez baitaukate euskarazko hizkera gazterik.

Harreman-sareetako hizkuntza arauai eta ohiturei so egiten badiegu, gehienak gaztelaniaz direla konturatuko gara. Dena den, adinaren araberako sailkapenak egin beharko lirateke. Hautatutako laginetan ikus daitekeen bezala, 6-12 bitarteko haurrek euskaraz egiten dute askotan, 13-15 bitartekoek ia inoiz ez. Adinean salto eginda, heldutasunera helduz, hizkuntzarekiko motibazio sinbolikoak dauzkaten gazteak euskarara bueltatzen dira, Adaxkak taldeko begiraleak kasu. 30 urte inguru dituzten euskaldunen kasuak ere antzekoak direla esan daiteke. Guraso izaten ari direnak, etxeko harreman-sareak euskalduntzen ari dira.

70-80ko hamarkadan Barakaldon euskaldundu ziren biztanleen kasua oso bestelakoa da, beti aritzen dira euskaraz. Bikotekide erdalduna izan arren, askok euren seme-alabei euskara transmititu diete.

Azkenik, esandako guztia kontuan hartuta, Barakaldon euskara normalizatzea zaila izango bada ere, Hizkuntza Politika egoki bat garatuz, harreman-sare euskaldun gehiago sortuz, euskarari dagokion prestigioa emanez, euskal erreferenteak sortuz etab. aurrerapauso asko eman litezkeela pentsatzen dut. Lan asko dago egiteko, baina hau guztia aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa da instituzioen eta euskalgintzaren arteko elkarlana sustatzea. ●

**70-80ko
hamarkadan
Barakaldon
euskaldundu
ziren biztanleen
kasua oso
bestelakoa da,
beti aritzen dira
euskaraz.
Bikotekide
erdalduna izan
arren, askok
euren seme-
alabei euskara
transmititu diete.**

BIBLIOGRAFIA

- Aizpurua, N. (2000): "Jarrerak eta jokabideak euskararen etorkizunari begira" in Martinez de Luna, I., Berrio Otxoa, K. *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko Gaztetxoak eta euskara*, Bilbao, Universidad Pública de Navarra, Institut Culturel Basque, Universidad del País Vasco, 2000, p. 207-258.
- Altuna, O. (2002): Erabileraren Kale Neurketa. Ibilbidea eta metodologia, *BAT* 43 (25-35).
- Amonarriz, K. (1994): "Euskararen erabilpenaren kale neurketa 1993: abiapuntu berria" *BAT* 13/14 (77-90).
- Armendariz Tirapu, A. eta Arburua Etxeberria, A.P. (2007): "Nafarroako udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuek bideratutako egitasmoak: diagnosia eta balorazioa". *BAT* 63 (55-64).
- Baraibar, H. eta Kristina B. (2007): "Eremu ez-curricularraren garrantzia euskararen erabileran". *BAT* 63 (39-47).
- Berriotxo K. (2007): "Euskal Herriko gaztetxoek eskola-orduz kanpoko hizkuntz erabilera" *BAT* 63 (27-374).
- Egibar, M.; Esnaola, A. (2007): "Euskal ludikotasuna erabiliz, euskara indartu". *BAT* 63 (67-72).
- Eizmendi, I., Uriarte, A., Zubillaga, O., Errasti, A. (2007): "Hezitzaileek asko egin dezakete euskararen erabilera sustatzeko". *BAT* 63 (117-129).
- Herrarte, E. (2007): "Txatxilipurdi elkartearen esperientzia". *BAT* 63 (83-93).
- Intxausti, J. (1998): *Euskararen aldeko motibazioak*, Leioa, UPV.
- Jauregi, N. (2007): "Eskola kirola Gipuzkoan". *BAT* 63 (73-81).
- Martinez de Luna, I., Berrio Otxoa, K. (2000): *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko Gaztetxoak eta euskara*, Bilbao, Universidad Pública de Navarra, Institut Culturel Basque, Universidad del País Vasco.
- Martinez de Luna, I., Jausoro, N., (1998): "Euskararekiko motibazio sinbolikoak", Intxausti, J. *Euskararen aldeko motibazioak*, Leioa, UPV, 1998, p. 69-136.
- Mendiguren Bereziartu, X. (2007): "Udalerrien garrantzia euskararen erabileran". *BAT* 63 (103-108).
- Muñoa, I. (2007): "Hitzaurre gisa". *BAT* 63 (25).
- Perez, S. (2007): "Aisia euskaraz bizi!". *BAT* 63 (111-115).
- Perez, S.; Altuna, J. Lujanbio, Oihana (2007): "Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba proiektua". *BAT* 63 (49-53).
- Plazaola Otadui, E. (2007): Eskolaz kanpoko jarduerak eta hizkuntza normalkuntza, Bergaratik begiratuta. *BAT* 63 (95-102).
- Soziolinguistika Klusterra: *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*: <http://www.soziolinguistika.org/node/4379>. [Azken kontsulta: 2011-12-01].

Sasiburu Barakaldoko euskaldunon elkarte: matrikulazio datuak

<http://comunidades.kzgunea.net/CentrosRegionales/ES/Novedades/CENTROS+FEDERADOS.htm>)

<http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/euskarab2-1.pdf>

http://eu.eustat.es/municipal/Dialog/Varvalagg.asp?ma=pxMunicipal_e&ti=Udal+informazioa&path=../&lang=2&xu=&yp=&nr=2&prevag=YNN&group%281%29=Barakaldo_e&aggfile%282%29=Euskara&mapname=Capv_udalerrria&multilang=#axzz1SdUDD5Bl

<http://www.udalenhizkuntzapolitika.org/udalerrriak/Barakaldo/Barakaldo.html>).

<http://www.liburutegidigitala.euskadi.net/applet/libros/JPG/parlamento/00027399/00027399.pdf>

<http://www.soziolinguistika.org/gazteak>

OHARRA

1. Lan hau Hiznet Hizkuntza Plangintza Graduondoko sakontze-egitasmo gisa landua izan da, Lionel Jolyren zuzendaritzapean, 2010-2011 ikasturtean.